

RENE CASSIN (1887-1976)
BIZITZA ETA LANAK

Jean-Louis Davant

Baionan sortu zen 1887ko urriaren bostean, orai Ducéré karrika den udaletxeko karrikan, « *Fariné ostatuaren alde ganean, herriko etxeari buruz* » diosku haren biografia eta ezagutzaile adituena den Marc Agik, bere liburu nagusian : *René Cassin / 1887-1976 / Prix Nobel de la Paix / Père de la Déclaration universelle des droits de l'homme / Librairie Académique Perrin, 1998.*

Renéren ama, Gabrielle Dreyfus, Baionakoa da, aita Azaria Cassin Nizakoa. René lau haurretarik hirugarrena da : Fédia (seme gehiena), Félice (arriba handia) René beraz, eta Yvonne.

1891ko irailean, Baiona utzirik, familia Nizan plantatzen da. René lau urteetara doa. Bakantzak amaren gurasoekin hartuko ditu Baiona Santizpiriteko etxean. Inguruko etxaldeetan adiskide onak eginen ditu bere adinekoen artean.

Bi aldeetarik israelitak dira. Gizonak franko laikoak, erlijiora guti ekarriak, emazteak fidelago, eta horiei esker Renék bere « bar mitzva » eginen du 1900an, hamahirugarren urtean.

- Batxiler diploma 1904an filosofia eta matematika sailetan, Nizako ikastetxe publikotik.
- Zuzenbide ikasketak Aix en Provenceko fakultatean.
- Soldaduzka 1906an, 19 urteetan, mendiko infanterian, Nizatik hurbil : ofiziergaien taldeko lehena sailkatzen da, baina puntu hori ez diote soldadu libretean sartzen, eta 1914an soldadu soil bezala gerlara deituko dute.
- 1908an zuzenbide lizentzia Anitz Ongi aipamenarekin, eta historiako lizentzia Ongi aipamenarekin. Hor Simone Yzombard emaztegaiaren ezagutza egiten du.
- Parisen biziko da lan xume batzuei esker, zuzenbideko doktoregoa eta agregazioa prestatuz. Doktoregoa 1974an erdietsiko du, eta agregazioa 1919an.
- Bien artean gerla eginen du. 1914ko uztailearen 31an, Paul Ramadiere etxean afaltzen da, horren andrea gomituz. Paul ikasle laguna zuen, eta biak abokatu dira. Jean Jaurès fanatiko batek hil duela jakiten dute : gerlaren seinalea zaie. Biharamunean denak armadara !
- Marneko guduan parte hartzen du Antibesko errejimentu oinkarian ; bere kuraiagatik kaporal izendatzen dute.
- 1914ko urriaren 12an Saint Mihielen, Meuse departamenduan, Lorraine eskualdean, bala leherkari batek larriki zauritzen du besoan, saihetsean eta sabelean.
- Amak eta andregaiak, erizain bolondres moduan, artatzen dute Antiben, behin behineko 2. Ospitalean, gobernuak mailegatu duen hotel batean. Gerlako elbarritua denez, armadatik libre dago.
- Simone Yzombardekin ezkontzen da 1917ko martxoaren 29an Parisen, VI. Eskualdeko udaletxean. « Lekuko nagusia Paul Ramadier adiskidea du, artean hura ere zauri

batzuetarik sendatua », diosku Marc Agik, aipaturiko liburuan, 38. orrialdean. Eztei bazkaria Lapérouse ostatuan. Bikote gaztea Aix hirian plantatzen da.

1918ko otsailaren 26an, *Union des combattants mutilés et veuves de guerre UF* elkartearen sortzaileetarik dugu, eta UF hori Frantziako gerlari ohien elkarte nagusia date, Cassinen gidaritzan bururaino. «Nazioaren defentsan jasaniko kalte pertsonalen ordain eskubidea » Estatuari onararaziko dio. «Nazioko haurzurtzen aita » deituko dute arrazoi osoz. Gerlako kaltetu guzien alde deraman lanak garaipen handia erdiesten du 1918ko azaroaren hamekan, «**Clémenceau zaharrak** » legebiltzarreko aulki nagusitik oihustatzen duelarik : « **Gure gain eskubideak badituzte !** »

- 1919an, agregazioa erdietsirik, lanpostu onak baztertzen ditu (Aix, Bordele, Nancy, Poitiersen) eta Lilleko unibertsitatea hautatzen, gerlak gehienik kaltetu duena delako. Hor zuzenbidean irakatsiko du, 1929an Pariseko fakultatera izendatua izan arte.
- 1921eko irailaren 2an eta 3an, UF elkartearen izenean, Cassinek Genevan frantses eta aleman gerlari ohien bilkura bat antolatzen du BIT delakoaren babesean (*Bureau Internatinal du Travail*).
- UF elkarteko milioi bat kideen presidente hautaturik, erakundea SDN delakoaren zerbitzuko jartzen du : *Société des Nations* hori, 1920an sortua, Genevan kokatua, ONUren arbasoa dugu. Haatik ahulezia bat badu, ez txikia : Amerikako Estatu Batuak ez dira hor sartu.
- 1924ko irailetik, Cassin Frantziak SDNean duen ordezkartitzan dago, beste hameka kideekin, Edouard Herriot politikari famatua buru dutela. Iraileko 23an, tribunara lehentze igaiten da, zirrara handi batekin.
- 1925eko irailaren 18an eta 19an Genevan, Europako gerlari ohien elkarte apolitikoekin eraikitzen du « *Conférence internationale des associations de mutilés et anciens combattants* », *CIMAC* delakoa. Horren bozeramaile iraunkorra date.
- Cassinek SDN erakundea etengabe sostengatzen du. Nahi luke « *Nazioen erakunde juridikoa* » bilaka dadin. Moralki indartzea aholkatzen dio, gero « *nazioarteko polizia organiko baten sortzea, ahalaz airekoa* », bai eta « *armen kontrolatzeko Batzorde iraunkor baten biltzea, botere handiak horri emanaz* ». (Marc Agi, 76. or.).
- Gerlako frantziar adituek baino lehen, Cassinek asmatu du hegazkinek geroko gerletan nolako indarra zuketean. « Frantses militarrek 1932an nekez asma zezaketen gerla bat irabaz zaitekeenik, infanteria on bati esker ez bazen. « *Balizko gerla batean aireko armadak egin zezakeenaz, harritu ninduten gure ofizier gehixenen ideia hertsia eta zaharkituek, italiar hegazkinlariak harturiko bide berriei konparatuz.* » Tankeen ahalez alderantziz, frantsesak franko aitzindari zabiltzan, teoriko baten lanei esker, hau dela de Gaulle, berrogeita hiru urteko komandantea. Painlevé-Paul-Boncour planaren zati bat idatzi du, « *dibisio zinez blindatu eta mekanizatuak ONUren meneko jartzea* » antola lezakeena ; eta desarmatzeko biltzarrean parte hartzen du. Baina tanke gotorrenak ere, Cassinen aburuz, ezdeus daude bonbardatzeko hegazkinez indartsu den etsaiari buruz. » (67. or.).
- 1926ko irailaren 26an Alemaniako Errepublika SDN erakundean sartzen da Frantziaren sostenguz. Aitzineko urtean Locarnoko hitzarmena sinatu dute Briand eta Streseman kanpo aferetako ministroek.
- 1929ko irailaren 7an, SDNeko tribunatik Aristide Briandek Europako Batasun « federal » baten xedea oihustatzen du : « *Uste dut, dio, Europako populuen artean, lotura federal bat behar dela (...). Lotura horren finkatzera lehiatu nahi nuke.* » Lehenik ekonomikoa litzateke, gero politikoa eta soziala. » (58. or.).

- 1959 urte horretan Cassin Pariseko fakultatean zuzenbide zibileko aulkira izendatzen dute. 1960an erretreta hartu arte hor irakatsiko du, lau urteko etenaldi batekin, desterruagatik (1940-1944) : Londresen hiru urtez egonen da, Aljeran urte batez.
- Zoritxarrez Aristide Briand subitoki hiltzen da 1932ko martxoaren 7an. Gainera Alemania industrialak erdiz-erdi jo du 1929an New Yorken hasi den bankarrotak : langabeak milioika ditu. Hitler gobernura heltzen da 1933ko urtarrilaren 30ean. Abian finkatzen du alderdi bakarraren diktadura eta beldurraren erreinua, lehen kontzentrazio guneak eraikiz oposizioko alemanentzat. Langabeak arma eta munizio egiten ezartzen ditu ; haatik ekoizkin horien berritzeko, gerla behar du. Gainera armen eroslea da, eta lantegien itzulikarazteko, diru kuxkak husten ditu : beraz auzoko Estatuenean arpillatzera joanen da : Txekoeslobakia, Polonia ... urrez gabetuko ditu. Frantziakoak doietarik ihes egiten dio, baina goazen urraska !

1933ko irailean, SDNeko egoitzan, Cassin antzerki harrigarri eta mehatxagarri baten ikus-entzule gertatzen da. Silesia Garaiko aleman judu bat, **Berheim**, Alemaniako gobernu berriaren akusatzaile agertzen da, honek bere juduei egiten dien pertsekuzio bortitza salatuz. **Goebbels**, propagandako ministroa, tribunara igaiten da, ondoan dituela hogeit hamar mutiko gazte, denak pistola bana sakelari : « **Ikazkina bere etxean nagusi da** ». **Estatu subirano bat gara ; gixolot horrek dioen guziaz ez da zuen afera. Nahi duguna egiten dugu gure sozialista, pazifista eta juduez, eta ez dugu kontrolik behar, ez gizateriaren, ez eta SDN delakoarengatik.** » (Marc Agi, 70-71. or.).

Cassin lazturik dago. Herritari bizitza nahi bezala ken dezakeen Estatu ahalguzidun baten ideia ez dezake xintxa. Berak jendea oroz gainetik dauka. Eta bortizkeria barneko legetzat daukan « Estatu terrorista » bat indartzen ikusten du : auzoekin ez da eztekiago ariko. Cassinek harrigarriki sentitzen du munduko gerla berri bat datorrela : zuzen eta laster horra da, SDNa eta demokrazia handiak ez badira berehala higitzen !

Abisua abisuaren gain ematen du, baina debaldetan. SDNa ahulduz doa, Frantzia eta Britainia Handia beti gibelka Hitlerren eskarien aitzinean. Utzikeria batetik bestera lerratuz, Chamberlain eta Daladier lehen ministroek Txekoeslobakiaren suntsiketa onartzen dute Munichen. Laster Hitler Polonian sartuko da, munduko bigarren gerla piztuz.

- 1940ko maiatz-ekainetan aleman armadak Frantzia eta Britainia Handikoa xehatzen du Polonian esprabi zuen « **blitzkrieg** » delako gerla-tximistaz. Tankeen eta hegazkinen arteko bikote deabruak ustakabeen mututzen du infanteria asmuluz bat, urrundik manatua ; aitzindari xaharrotak gerla baratx eta luze baten beha zaudeen : haien ustez 14-18koaren errepika izan beharra zen, haatik ez arroila lohitsueta, baina zimenduzko bunkerren gerizan. Aleman armada « *ligne Maginot* » horren bazterretik sartuko da. Estrategia zaharkitu baten porrotak zer dakarren : frantsesen ihes orokorra, familia gaixoak eta soldadu sakabanatuak nahas-mahas, trumilka bide guzietan.
- Iheslarien uhinetan, haien alde ahal zuena eginik, Cassin Baionara heltzen da ekainaren 18an. Biharamunean Guy Menant adiskideak de Gaulle jeneralaren deia aipatzen dio.
- Ekainaren 24 arratsean Donibane Lohizunen azken ontzi britainiarra hartzen du, emaztea eta Raymond Aron irakaslea lagun, kasik lehen aleman motodunen sudur petik. 27an Plymouthen lurreratzen da. 29an de Gaullek harrera egiten dio. Bere beso eskuin izendatzen du, seguruago beso ezker, frantses eskuin gehixenak besobakar utzi baitu, ezkerret bezala.

« Cassinek absolutuki jakin nahi du ea de Gaulle, ofizioko soldadua eta eskuineko katolikoa, ezkertiar legegizon judu baten laguntzailatzat hartzeko gogotik prest ote den.

Baina jeneralak abian baketu nahi du. Ez ote dira justuki biak Frantzia egin duten indar ezberdinen sintesi perfektua ? Orain Frantzia hori arriskutan dago. Seme guziek elkarrekin zaindu behar dute, ez bakarrik beren arteko diferentziak onartuz, baina horiez ahal bezain ongi baliatuz. Egun horretan Cassinek de Gaulle uzten duelarik, segurtamen bat bederen badu : de Gaulle eta bientzat, erresumaren ongiak lehentasun osoa du. » (Agi, 114. or.). Bestalde de Gaullek beti erranen du **Errepublika ez dela sekulan ezabatu**, Vichyko Frantziar Estatu harentzat zuzen kontrako hutsarte, zorigaitzoko istripua, Uburen ezerresuma baizik ez baita.

- Cassin Londresen egonen da hiru urtez, gero Aljerren urte batez (1943ko abuztuaren 20tik 1944ko abuztuaren 24ra).
- De Gaulle eta Churchillen arteko hitzarmena idazten du : 1940ko abuztuaren 7an sinatuko dute britainiar lehen ministroaren egoitzan ; testu horretan oinarritzen da Frantzia Librearen eta Britainia Handiko Erresuma Batuaren arteko aliantza : Estatu fazisten suntsipeneraino lotuko ditu.
- Cassinen eskutik dator halaber Irujo-de Gaulle hitzarmenaren idazkia : Frantses Indar Librean baita, euskaldun gudari talde baten eraketa hitzartzen du. Churchillen debekuak tratua deseginen du, Francori munduko gerlan sartzeko estakururik ez baitio eman nahi..
- Cassin BBCtik usu mintzo da : 140 hitzaldi egingen ditu orotara.
- Frantses Inperioko defentsa kontseiluko idazkari iraunkorra da, eta gero Frantses Kontseilu Nazionaleko hezkuntza eta justizia komisarioa / ministroa Kontseilu horren sorreratik, hots 1941eko irailaren 24tik.
- Frantzia Librea ordezkatzeko nazioarteko bilkura batzuetan, bereziki 1941eko irailaren 24 horretan, Saint Jamesko bigarren bilkuran : hor Aliatuek onartu dute Atlantikako Kartaren testua, Churchill eta Rooseveltek abuztuaren 14an sinatua (Agi, 114. or.). Amerikako Estatu Batuak ez ziren oraino gerlan sartuak, 1941ko abenduaren zazpian sartuko dira, Japoniak Pearl Arboren erasoko dituenean. Bere aldetik Rooseveltek Britainia Handia gerlarako hatuz hornitzen du.

Aljer utzirik 1944ko abuztu ondarrerantz, Cassinek Paris libratuan bere egoitza edireiten du, ustekabean osorik. Haatik askazi hurbiletarik hogeitaz galduta : Nizako familiatik hamabi eta Baionakotik zortzi, gerlan edo deportazioan hilak. Hamalaukoan jadanik, hogeitaz zortzi gerlara deituak izan ziren, eta zortzi han hil.

- 1944ko eskola sartzeko, zuzenbide zibilean irakasteari lotzen da berriz Pariseko fakultatean.
- Bestalde kargu handirik beteko du, baina beti justiziako eta kulturako gaietan : Munduko Aliantza Israelitako presidentea 1942tik, UNESCO erakundearen sortzaileetarik da 1945ean Parisen, eta hor Frantziaren ordezkaria 1958raino, ONUko Giza Eskubideen Batzordeko presidentea, frantziar Estatu Kontseiluko presidenteordea (1944-1960), frantziar Kontseilu Konstituzionaleko presidentea, eta Europako Giza Eskubideen Gorteko lehendakaria 1965etik.
- 1948an, Eleanor Roosevelt andere adiskidearen babesean, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala zirriborroan idazten du, eta idazki hori, zuzenketa guti batzuekin, ONUko biltzar nagusiak onartuko du Pariseko Chaillot jauregian, 1948ko abenduaren hamarrean. René Cassin mundu osoko Aldarri horren aita dugu beraz.
- 1959ko urtarrilaren zortzian, Pariseko Elysée jauregian, horren aitzinean zin egiten du Charles de Gaulle Errepublikako presidente berriak, Cassin behin-behineko Batzorde Konstituzionaleko burua baita. Jeneralaren itzulera politikoa sostengatu du, baita V.

Errepublikako Konstituzio xedea 1958ko irailaren 28ko erreferendumean. Baina 1962ko urriaren 28ko erreferendumean, ezetz erraten dio Errepublikako presidentearen hautatzeko lege berriari, hots bozketa orokorrez zuzenean hautatzeari : beldur da botere pertsonalera ereman dezan.

- 1960an zuzenbide zibileko irakaskuntzatik erretiratzen da : lan horretan ari izan da 1919tik (Lillen 1929ra, gero Parisen).
- 1966 ondarrera, Pariseko egoitzan Piarres Charritonon bisita bat hartzen du : orduan apeza zen Piarresek hegoaldeko euskaldun iheslari batzuen laguntzera deitu nahi zuen, Frantziako gobernuak kanporatzen baitzituen. Hona elkarrizketa horren istorioa, Piarres Charritonek Baionako egoitzatik 2009ko urtarrilaren bederatzian frantsesez igorri didan gutunetik :

« Aterbetu politikoen babesteko Genveko Ituna oinarritzat harturik, (...) adiskide batzuek igorri ninduten gai horiez René Cassini aholku eskatzera Pariseko egoitzara, XX. mendeko legegizon famatuenetarik baitzen ; israelita, Baionan sortua Ducéré karrikan 1887an, 1914-1918ko gerlan handizki zauritua, SDNeko kargudun gorenetarik eta Aristide Brianden adiskidea, munduko bigarren gerla denboran de Gaulle jeneralaren idazkaria izana Londresen, eta gero Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren idazkari nagusia 1948an, eta berantago azkenean Bakeko Nobel sariduna 1968an. »

« Dena dela, 1966 urte ondarrera, Pariseko Saint Louis uhartera joan naiz, katedral ondora, René Cassini bere egoitzan bisita egitera, eta Espainiako euskaldun aterbetu politikoei kasu egiten zuen Frantziako euskaldun apez bezala agertu naizenetik, atera jin zait harrera egitera, ene harridurako kantu hau abestuz : « *Boga, boga, Marinela !... Bai Indietara !...* » eta hasiera hori argituz erran dit : « *Aitzina ! Aitzina !... Azalduko dizut...* » eta kontatu dit nola Baionan, haren sortetxean, Baionako etxe on guzietan bezala, neskameak eta inude / hazama guziak euskaldunak zituzten, eta holaz berak entzun eta ikasi zituen lehenbiziko kantuak euskara hutsezkoak zirela. Gehitu dit haren amasoetarik bat euskalduna zela, Ortzaize aldekoa, eta hori anitzez berantago baieztatu dut Lévy d'Abartiague familia estudiatuz, 1900 iriko politikan franko ezaguna izan baitzen ibar horretan. (...).

Baiona, 2009ko urtarrilaren 9a, Piarres Charritonon. »

(Gutuna frantsesetik itzuli dut).

- 1968ko abenduaren bederatzian Oslon, Olav erregearen aitzinean, René Cassinek Bakearen Nobel Saria ukaiten du Aase Lioanes anderearen eskutik, hau Nobel batzordearen burua delarik Norvegiako legebiltzarrean.

- 1969ko azaroaren 24tik 27ra, Rouen hirian bilkura bat egiten da « **Artikako garapen ekonomikoa eta eskimo gizartea** » gaitzat harturik. Hor Cassinek dio bereziki :
« Lehentze historian Siberia, Alaska, Kanada eta Groenlandeko eskimoak bildu dira beren gai komunez mintzatzeko, nortasunaz, lurreko eta lur azpiko jabegoaz, hots geroaz hitzegiteko. Beren etorkizuna eskuetan hartu nahi dute, eta gehiago ere : ohartu dira arrisku larrien mehatxu pean daudela, munduko nazio gutitu guziak bezala : beren kulturaz eta hizkuntzaz desjabetzeko arriskuan, lurraren galtzeko perilean, kutsaduren eta gaitzen lanjerean (Artika, petroliokariak jadanik ustiatzen dute, ingurumenari kalte handi eta larriak eginez). » Artikak orain jasaten dituen arazo ekologikoak aitzinikusi ditu, eta gainera « **munduko nazio gutituen** » geroaz axolatu da Cassin ; haatik laster ikusiko dugu ez lukeela nahi Estatu mikroskopikoak burrustan sor daitezen: haren ustez, ezin bizia lukete, eta inperialismoentzat irents errazegiak lirakeke ; « *autonomia lokal eta federalak* »

nahiago ditu. Roueneko egunaldi horien ondotik, Iparreko populuen nazioarteko idazkaritza bat ideki da Parisen.

- 1969ko abenduan Estrasburgon giza eskubideen nazioarteko Ikastetxea sortzen du : giza eskubideen abokatuak eta epaileak moldatzen ditu bereziki. Cassinentzat hezkuntza, justizia, indar etikoa eta aburu publikoaren sostengua denen oinarrian daude. ONG delako Gobernu Kanpoko Erakundeek anitz egin dezakete giza eskubideen alde, bereziki Estatua bulkatuz (Agi, 307-308. or.).
- Pariseko ospitalean sarturik, azken dei bat egiten du 1975eko abenduaren 15ean, eskatuz geldi daitezzen Sobiet Batasunean juduen aurkako erasoak eta Libanon kristauen aurkako triskantzak.
- . 1976ko otsailaren hogeian itzaliko da, arratsaldean.
- 1987ko urriaren bostean, sortzeko mendeurrenean, haren hautsak Panthéonean sartzen dituzte, François Mitterrand Errepublikako presidentea delarik, eta Jacques Chirac lehen ministroa.